


Liburuak

KRITIKA

Joñixio.

Jon Andoni Irazusta.

Ekin argitaletxea, 1946 (1991n EEEK berrargitaratua)
202 orrialde. 6 euro



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Katebegi galdu bat

NAGO, ARRETA GUTXIEGI eskaini ote diegun 1936ko gerraren ondorengo urteetako euskal idazleei. Ez ditugu eskolan ikasi. Ez dute prentsarik izan, ez on eta ez txar. Zulo beltza dago lerrook idazten dituenaren memoria-lerroan ere: Lauaxeta, Lizardi, Orixe eta enparauak; Txillardeggi, Aresti eta belaunaldikoak ondoren; ez-moderno eta modernoak. Tartean, ia bi hamarkada huts.

Egia da, errautsez beteriko urteak izan ziren, idazten zen, baina gutxi, atzerititik. Galdua zen dena. Izan ordea, baziren idazleak. Jon Andoni Irazustak 1946an publikatu zuen *Joñixio*, bere lehen nobela, Buenos Airesko Ekin argitaletxean. Nire eskuetara irisi den edizioa, Euskal Editoreen Elkarteak 1991n argitaratua, Gotzon Garatek apailatu zuen.

Joñixio, zioen Garatek sarreran, euskaraz idatzitako lehen nobela errealista izan zen. Europako beste literaturekin alderatuz 76 urteko atzerapenez heldu zitzaigun errealismoa, partean, gerra osteko giroak eraginda, ohitura-eleberria bazterrean uztearekin.

Zailtasun handirik gabeko istorioa da: Joñixio gaztea Argentinara doa artzain Amezketatik. Han urte asko bizi ondoren etxera bueltan, dirudun baina zahar, ezagunik gabe, bere iloba Maitexarekin ezkonduka. Momentu hori –nobelaren zati interesgarriena, gaur egundik begiratuta– iritsi bitartean Joñixioren joan-etorrien berri emango zaigu: artzain bizimodu bakarti eta errepikakorra.

Uste dut Garatek arrazoi zuela liburu hau errealistatzen hartzean, bi arrazoiengatik: egileak darabilen hizkera oso kalekoa da, batetik, eta horrek urrundu egiten du ohitura-eleberrien molde puristetatik; bestetik, pertsonaien barne gatazkak nola edo hala azaleratu egiten dira –Maitexak osabarekin ezkontzeko jartzen dituen eragozpenak, etsenplu argiena–. Nobela errealista ez dela diotenen argudioei jarraituz, aitortu behar dut Euskal Herria topos soil baina areago, patua dela protagonistarentzat, aberriaren nolabaiteko idealizazioa sumatzen zaiola idazleari; edonola ere, euskal ohitura-eleberrian ohikoa zena baino lightagoa da hori nobela honetan.

Gatazkak eta istorioko beste min batzuk –kasu, atzerrira beharrak eragindakoa– ez daude oso modu efektiboan kontatuta. Irazustaren prosak sinesgarri egiten dizkigu elkarrizketak, baina narratzailearekin ez da ber gauza gertatzen, non eta ez den ari ekintzaren bat kontatzen. Esango nuke liburuak orri asko soberan dituela, eta euskal literaturaren ikuspegi orokorretik trantsiziozko lana izan zela. Erdibideko urratsa.

Esan dut, katebegi galdu bat zen niretzat *Joñixio*, deserrian egindako esker txarreko lana, eta hala ere ekarpen xumea egin zuena. Zenbat halako ote dauzkagu, apaletan hautsa hartzen...

Literaturgile gazteen lanak bilduma batean

Euskaltzaindiak eta BBK fundazioak antolatzen duten Azkue Literatur Sarietan irabazle izandako lanak argitaratu eman dituzte bilduma batean. *Narrazioak eta olerkiak 2007* izeneko liburuan, idazle gazteek egindako hamairu istorio eta poesia lan irakur daitezke. Ikuspegi bereziz egindako idatziak dira guztiak ere:



Narrazioak eta olerkiak 2007.
Askoren artean.
Euskaltzaindia eta BBK.
106 orrialde.
3 euro.

Protagonistak gazte-
txoak dira gehiengan,
idazkera freskoa dute
eta ideia biribil bezain
ausartak azaltzen di-
tuzte literaturaren bi-
dez. Abenturak, mai-
tasun istorioak, ur
tantaren karira egin-
dako poesiak, gere-
ziondo baten abarora
ekarritakoak... Liburu
anitza eta atsegin
dugu honakoa, irudi-
mena pizten duen
horietakoa. **I**

Euskal Herri basatierna ezagutzeko leihoa

Natur gida mardul eta osatua kaleratu du oraingoan Sua argitaletxeak. *Euskal Herria salvaje. La gran guía de la naturaleza* izeneko liburuan, gure herriko hamaika bazter ezagutzeko parada ematen zaigu, bost zati nagusitan banaturik: Kostaldea; bailarak eta basoak; amildegi eta malkarrak; gailur ezagunak; errekek eta ur jauziak. Gida, atlas paregabe batek hornitzen du, eta aurkibide zehatzak dakartza halaber. Proposatutako leku edo ibilaldi bakoitzarentzat informazio praktikoa ugari ematen du liburuak eta



inguruko natur berezita-
sunak ezagutzeko aukera
izango du bisitariak. **I**

Euskal Herria salvaje.
Mikel Tellagorri eta Alberto
Muro (argazkiak).
Sua edizioak.
651 orrialde. 30 euro.